

## EUSKADI


### BIGARREN IMMIGRAZIO-ZIKLOA ZENBAKITAN

Nahiz eta COVID-19ak immigrazioa eten duen –eta zaila bada ere aurreikusten eten horrek zenbat iraungo duen eta zenbat diren etorri gabe geratuko direnak–, **2014az geroztik etorkinen bigarren immigrazio-zikloan gaude Euskadin.** Lehenengoa 2000 eta 2008 bitartean izan zen, baina eraginek 2011 arte iraun zuten.



Etenaldi horren ondoren, fluxuak berriro aktibatuko dira, beharrak ez baitira eten.

**Ez dago langile-eskaririk gabeko immigrazioerik. Emigrazioa, aldiz, gabeziek eragindako kanporaketa da.**



## KOLEKTIBOAK BANAKATZEN

Immigrazio-esperientzia hori izanda, **bereizi egin behar dugu zer den jaioterra eta zer den nazionalitatea.** Izan ere, azken urteetan gero eta handiagoa da dibertsifikazioa; ezaugarri soziologiko desberdinak ditu, eta, beraz, tratamendu espezifikoak beharko dira.

Barne-aniztasun horrek adierazten du egiturazko fenomeno baten aurrean gaudela, eta **bertan kokatzea datorren immigrazioa dela.**



## ZIFRAK BANAKATZEN


Bigarren ziklo honetan bete-betean sartuta, eta **2020ko urtarriaren leko** behin-behineko zifren arabera, **atzerrian jaiotako eta/edo atzerritar-jatorriko biztanleak, guztira, EAEko biztanleria osoaren %11,7 dira.**



**Zortzi pertsonatik bat**, edo Euskadin jaiotako eta atzerritar-nazionalitatea du, edo atzerrian jaiotako eta atzerritarra izaten jarraitzen du edo nazionalizatuta dago.



Horiek ia **260.000 lagun** dira, 2019ko data berean baino 20.000 pertsona gehiago.



## ZIFRA ZEHATZAK

- 17.689** pertsona dira Euskadin jaiotako eta atzerritar-nazionalitatea dutenak
- 79.161** pertsona dira atzerrian jaiotako eta nazionalizazioa lortu dutenak
- 162.563** pertsona dira atzerrian jaiotako eta atzerriko nazionalitatea izaten jarraitzen dutenak
- 1.961.091** pertsona dira "autoktonoak"



## BILAKAERA DESBERDINA

- Euskadin jaiotako eta atzerritar-jatorria duten haurren kopurua hazi egingo da** (Icon: baby)
- Nazionalizatutako pertsonen kopuruak ere gora egingo du etengabe** (Icon: plus sign)
- Atzerritarren etorrera moteldu, murriztu eta lehengoratu egingo da.** 2012tik 2015era behera egin zuen, eta 2016 urtetik gaur egunera arte berriro ere gora egingo du (Icon: bar chart with downward arrow)

Aurreikuspenen arabera, **2020tik aurrera, Euskadin jaiotako atzerritar-jatorriko pertsonen kopuruak eta nazionalizatutako pertsonen kopuruak gora egingo du**, baina etorkin-kopuruak behera egingo du, moteldu egingo da eta, seguru asko, berriro ere erdi-mailako euskal klasearen beharretara egokitu, eta **2023tik aurrera hazi egingo da.**

